Communauté D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE
EUSKAL HIRIGUNE Elkargoa

Pôle territorial Sud Pays Basque
Hego Lapurdiko Lurralde eremua

Ahetze, Ainhoa, Arbonne, Ascain, Biriatou, Ciboure, Guéthary,
Hendaye, St Jean-De-Luz, St Pée-sur-Nivelle, Sare, Urrugne

Ahetze, Ainhoa, Arbona, Askaine, Biriatu, ziburu, Getaria,
Hendaia, Donibane Lohizune, Senpere, Sara, Urruña.

eder bidea

Interreg POCTEFA

UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

# ENQUÊTE

## «Mobilité des jeunes entre 12 et 17 ans»

*(mai - juin 2017)*

**Etat des lieux des pratiques et des besoins dans le cadre du :**

**«Schéma vélo sud Pays Pasque»**

# IKERKETA

## « 12-17 urte arteko gazteen mugikortasuna »

*(2017ko maiatza-ekaina)*

**Ohituren eta beharren egoera :**

**« Hego Lapurdiko bizikleta eskemaren » baitan**



# Introduction

Dans le cadre du projet européen transfrontalier **«Ederbidea»** visant à développer une mobilité plus durable sur le territoire transfrontalier, le Pôle territorial Sud Pays Basque de la C.A.P.B (Communauté d'Agglomération Pays Basque) élabore son schéma cyclable. Il s'agit de créer les conditions favorables de circulation à vélo sur le territoire pour offrir une alternative durable à l'auto-solisme.

Afin d'adapter les actions aux besoins et attentes de la population, le Pôle territorial Sud Pays Basque s'attache à connaître les pratiques actuelles, les freins et les leviers dont tirer profit pour les déplacements cyclables.

A ce stade, l'observation des pratiques et les enquêtes générales de mobilité auprès de la population montrent une faible part modale du vélo sur ce territoire de l'ordre de 1%.

Derrière ce constat unanime, ce phénomène est-il homogène parmi les différents types de publics et sur l'ensemble du territoire ? Quelles sont les pratiques des jeunes ?

Afin de mieux connaître les pratiques existantes, le Pôle territorial Sud Pays Basque Pays Basque a mené une enquête par questionnaire (annexe ) auprès des jeunes entre 12 et 17 ans, au sein des établissements scolaires du 2nd degré (collèges et lycées) du territoire. Elle vise à caractériser les usages pour les déplacements quotidiens des jeunes, et les potentialités d'évolution.

Les tendances principales sont synthétisées dans ce rapport.

# Sar hitza

Mugaz gaindiko lurraldean mugikortasun iraunkor bat garatzeko xede duen Europako Mugaz gaindiko « Ederbidea » proiektuaren baitan, Euskal Hirigune Elkargoko Hego Lapurdi Lurralde eremuak bere bizikleta eskema gauzatzen du. Bizikletaz ibiltzeko baldintza onak sortu nahi dira, autoaren erabilpen-bakarlariari alternatiba iraunkorra eskaintzeko.

Sar hitza

Mugaz gaindiko lurraldean mugikortasun iraunkor bat garatzeko xede duen Europako Mugaz gaindiko « Ederbidea » proiektuaren baitan, Euskal Hirigune Elkargoko Hego Lapurdi Lurralde eremuak bere bizikleta eskema gauzatzen du. Bizikletaz ibiltzeko baldintza onak sortu nahi dira, autoaren erabilpen-bakarlariari alternatiba iraunkorra eskaintzeko.

Ekintzak egokitzeko biztanleriaren beharrei eta itxaropenei, Hego Lapurdi Lurralde eremuak, gaur egungo jokamoldeak, oztopoak eta aukerak ezagutu nahi ditu bizikleta mugikortasuna garatu ahal izateko.

Mugikortasunari buruz jendeei egin zaizkien galdeketa orokorretan eta egin diren behaketetan ageri da bizikletak presentzia oso eskasa duela lurraldean, % 1aren ingurukoa baita.Erabateko egi horren gibelean ikus dezagun ea fenomeno hori jende mota guztien artean berdin ematen ote den, lurralde osoan eta nola jokatzen duten gazteek.

Egun diren jokamoldeak hobeki ezagutu nahiz, Euskal Hirigune Elkargoak ikerketa bat egin du, galdeketa baten bidez (osagarria) , 12 eta 17 urte arteko gazteen artean, lurraldeko bigarren mailako ikastegietan (kolegio eta lizeoetan).

Gazteek eguneroko leku aldaketetan erabiltzen dituzten baliabideak ezagutu eta izan litezkeen bilakaerak atzeman nahi ditu ikerketa horrek.

Txosten honek joera nagusiak azaltzen ditu laburki.

## Caractéristiques du territoire

Sur le territoire des 12 communes du Sud Pays Basque, on compte aujourd'hui **43km d'infrastructures cyclables en site propre** (pistes ou bandes cyclables, voies vertes), des services de location de vélo et de taxi-vélo.

**La Vélodyssée** est l'**itinéraire majeur** actuellement ; longeant le littoral national, il traverse le territoire du nord au sud, de Guéthary à Hendaye.

Des promenades à vélo sont proposées sur tout le territoire aux touristes par des prestataires de services.

Des outils facilitant un meilleur partage de l'espace public ont été mis en place par les communes. Il s'agit **de zones 30, de zones de rencontre, de contre-sens cyclable et de sas-vélo** notamment.

## Caractéristiques du territoire

Lurraldearen ezaugarriak Hego Lapurdiko 12 herrien eremuan, bizikletaz ibiltzeko 43 km bide berezitu ditugu egun (bizikletabideak edota bizikleta zerrendak, bide berdeak), eta badira bizikletak alokatzeko eta taxi-bizikleta zerbitzuak ere.

Vélodyssée izeneko bizikletabidea dugu, egun, ibilbide nagusia; nazioaren kostaldeari jarraiki, gure lurraldea iparretik hegoraino zeharkatzen du, Getariatik Hendaiaraino.

Turistei, lurralde osoan proposatzen dizkiete, zerbitzu emaile zenbaitek, bizikleta ibilaldiak.

Herriko Etxeek leku publikoak hobeki partekatzeko tresnak eman dituzte plantan. Halatan, baditugu 30eko zonak, topatze zonak, bizikletentzako kontramartxako aukerak eta bizikleta guneak.

## L'accès aux établissements scolaires

14 établissements scolaires sur le territoire, 12 dans des lieux de centralité. 3 collèges et 2 lycées au centre-ville de Saint-Jean-de-Luz.
La piste cyclable en rive droite de la Nivelle relie le centre-ville au secteur Chantaco.

Seuls les deux établissements scolaires situés à Ciboure sur la rive droite de l'Untxin peuvent être considérés comme « excentrés » mais accessibles depuis le centre-ville de Ciboure ou de Saint-Jean-de-Luz par une piste cyclable sécurisée (promenades en bord de baie et en bord d'Untxin) et par 3 lignes du réseau Hegobus (3, 20, 24).

A Hendaye, tous les établissements sont situés dans le périmètre du centre-ville, à proximité d'équipements sportifs (piscine, stade). Aucune piste cyclable n'assure la desserte. La piste cyclable rue de Santiago, aménagée pour desservir la piscine, est proche du collège d'Irandatz mais ne le rejoint pas. La ligne 5 du réseau Hegobus dessert les deux établissements.

A Saint-Pée-sur-Nivelle, les deux établissements présents sont situés en centre-ville, à proximité d'une zone 30, desservis par la ligne 22 du réseau Hegobus.

## Ikastetxeen sarbidea

Lurraldean badira 14 ikastetxe, haietan 12 erdiguneetan. Donibane Lohizuneko hiribarnean bildurik, 3 kolegio eta 2 lizeo.
Urdauriko eskuin bazterreko bizikletabideak Hiribarnea eta Xantako ingurua lotzen du.

Soilik Ziburun, Untxin ibaiaren eskuinaldean, kokaturik diren bi ikastetxeak daude «bazter», baina Ziburuko edota Donibaneko hiribarneetatik erraz hel daiteke haietara bizikletabide segur batez (badia ertzeko edo Untxin ertzeko ibilaldiak) edo Hegobus sareko 3 lineen bitartez (3, 20, 24).

Hendaiako ikastetxe guztiak daude hiribarneko eremuan, kirol horniduretatik hurbil (igerilekua, estadioa). Ez da inolako bizikletabiderik horretarako. Santiago karrikako bizikletabidea, igerilekura eramateko egina, Irandatz kolegiotik hurbil da, baina ez da haraino heltzen. Hegobus sareko 5 linea bi **eraikuntzetaraino heltzen da.**

Senperen dauden bi ikastetxeak hiribarnean daude, 30eko zona batetik hurbil eta Hegobus sareko 22 linea heltzen da haietaraino.

## A) Le vélo : « dernière roue de la charrette »








**Si près de 75% des jeunes possèdent leur vélo, ils l'utilisent pour autant peu ou pas du tout pour aller à l'école** : le vélo représente 6% des trajets domicile-école (8% au collège Sainte Marie à Saint-Jean-de-Luz et 3% dans les autres établissements).

Ce chiffre issu des questionnaires de l'enquête est confirmé lorsque l'on compte les vélos présents dans les garages à vélo des établissements (4 à 5 vélos par établissement). Sur le territoire et pour ce type de trajet, **le vélo se place derrière tous les autres modes de déplacements, à l'exception de la trottinette et du skate.**

Ce constat vient confirmer une tendance nationale qui veut que la France soit le pays d'Europe où l'on vend le plus de vélos mais qu'elle est loin d'être celle où on l'utilise le plus (3% de part modale du vélo en France, 10% en Allemagne, 29% aux Pays Bas, etc…).

## A) Bizikleta : «azken mamu gorria»





**Gazteen ia % 75ek bizikleta badu ere, gutxi edo batere ez dute eskolara joateko baliatzen :** bizikleta etxetik eskolara bitarteko ibilaldien % 6tan besterik ez da erabiltzen (% 8tan Donibane Lohizuneko Sainte Marie kolegioan eta % 3tan beste ikastetxeetan).

Ikerketaren galdetegietatik atera dugun kopuru hori egiaztatu da ikastetxeetako bizikleta aparkalekuetan dauden bizikletak ikusiz (4-5 bizikleta ikastetxe bakoitzean). Gure lurraldean, halako ibilbide baterako, **bizikleta beste lekualdatze moldeen gibelean da, salbu trotineta eta skatea.**

Horrek egiaztatzen du nazio mailan den joera bat, alegia, Frantzia dela bizikleta gehien saltzen den Europako herrialdea, baina urrun dela gehien erabiltzen denekoa izatetik

(garraio moldeen % 3a da bizikleta Frantzian, % 10 Alemanian, % 29 Herbeheretan, etab…).

## B) Gagnants : car scolaire et voiture ex aequo



**Les trajets domicile-école sont effectués majoritairement en car scolaire (37%) et en voiture (37%).** Viennent ensuite le scooter (21%) et la marche (20%). Souvent le scooter est préféré au vélo, il est « plus rapide », « moins fatigant ». Les jeunes utiliseraient le vélo «s'ils n'avaient pas de scooter ».

L'effort sportif que représente la pratique du vélo sur le territoire est mentionné à plusieurs reprises chez les 12-17 ans !

**A contre-courant, au collège Irandatz, la marche** est citée à hauteur de 27% des déplacements, devant le scooter.

Au collège et lycée Saint-Thomas d'Aquin elle est peu fréquente (6%), le car scolaire est cité plus souvent qu'ailleurs (32%).

## B) Irabazleak : eskola autobusa eta autoa ex aequo

**Etxetik eskolarako ibilbideak batez ere eskola autobusez (% 37) eta autoan (% 37) egin ohi dira. Gero eskuterra dator (% 21) eta horren ondoren, oinez joatea (% 20). Eskuterra bizikleta baino nahiagoa izan ohi da maiz, «lasterrago» dabilelako eta gutxiago «nekatzen» duelako. Gazteek bizikleta «eskuterrik ez balute» erabiliko lukete.** Gure lurraldean bizikletak dakarren kirol nekea hainbatetan aipatu dute 12-17 urtekoek!

Ohi ez bezala, **Irandatz kolegioan, oinez joaten omen dira %** 27, eskuterrez baino gehiago.

Saint-Thomas d'Aquin kolegioan gutxi erabilia da (% 6), eskola autobusa beste lekuetan baino gehiago erabiltzen dute (% 32).

## C) Les raisons de la non utilisation du vélo

- **«J'habite trop loin»**

D'une manière générale les collégiens et lycéens considèrent habiter trop loin de leur établissement pour pouvoir s'y rendre à vélo. Cette tendance est encore plus vraie parmi les réponses des lycéens, du fait de l'«aire de chalandise » encore plus grande des lycées. Les jeunes gens viennent beaucoup en scooter (25%), mode de déplacement pour lequel la notion de sécurité semble être occultée à leurs yeux.
Souvent, l'alternative du vélo n'est même pas envisagée. Le « fait d'avoir une autre solution et de ne pas y avoir pensé » constitue la 2ème réponse la plus fréquemment citée dans tous les établissements.
**Ces réponses confirment que l'organisation pour les trajets domicile-école est rodée, et que ces trajets sont difficilement compatibles avec le vélo.**

## C) Bizikleta ez hartzeko arrazoinak

- **« Urrunegi bizi naiz »**

Gehien erantzuten dutena etxetik eskolaraino den tartea da. Joera hori lizeora doazenen artean areagotzen da, espero zitekeen bezala, lizeoetako «nagi-antza giroa» dela eta.
Gazte ainitz ezkuterrez heldu dira ikastestetxera (%25). Aldi berean, segurtasunaren arrazoia bazter utzia da eskuter bidezko lekualdaketen kasuan. Ikastetxe orotan, gehien ematen duten bigarren arrapostua «beste bide bat dutela eta horretan pentsatu ez izana» da, segurtasuna eta ibilbidearen topografia baino gehiago.
**Arrapostu horiek erakusten digute etxetik eskolarako ibilbideen antolamentua egina dutela eta ibilbide mota hori ez dela bizikletaz egitearekin erraz uztartzen.**



- **Le vélo pour les loisirs**

**Les déplacements potentiels à vélo des jeunes sont quasi exclusivement consacrés à des destinations de loisirs, pendant le temps de loisirs.**
La dispersion statistique est différente pour les trajets concernant les loisirs. Plus variée et répartie de manière plus équilibrée que celles des déplacements domicile-école, elle offre au vélo une place plus importante (10% des déplacements). En moyenne, 25% des déplacements potentiels à vélo consisteraient à «aller à la plage», 20 % à aller se promener «en ville» notamment, et 10 % à se rendre aux activités sportives (entraînements, stade, etc...), le week-end, les mercredis et samedis après-midi, lors des vacances d'été. Notons également que la convivialité est un facteur faisant partie intégrante de la sortie à vélo « avec des amis ».
Par ailleurs, parmi les élèves se rendant systématiquement en voiture à l'école, 40% effectuent les trajets vers les activités de loisirs à pied (40%), en scooter (22%), en skate (12%), en bus (10%) et en vélo (10%). Ce constat confirme que pour les activités de proximité, d'autres usages sont possibles. La notion de proximité du domicile est citée explicitement de manière récurrente.

- **Bizikleta aisialdientzat**

**Gazteek bizikletaz egin ohi dituzten lekualdatze ia guztiak aisialdietan eta aisialdiari loturik diren lekuetara joateko egin ohi dituzte.**
Estatistika barreiadura ez da berdina aisialdiei loturiko lekualdaketetan. Etxetik eskolarako lekualdaketetan baino aldakuntza gehiago dago eta orekatuagoki banaturik da; bizikletari leku handiagoa egiten zaio (lekualdaketen % 10a). Batezbeste, bizikletaz egin litezkeen lekualdaketen % 25 «hondartzara joateko» lirateke, % 20 «herrian» promenatzeko, eta % 10 kirol lekuetara joateko (entrenamenduetara, estadiora, etab...), asteburuetan, asteazken eta larunbat arratsaldeetan, udako oporraldietan. Aipa dezagun ere lagunarteko giroari loturik dela «adiskideekin» egiten den bizikleta ateraldia.
Horrez gain, eskolara beti autoz joaten diren ikasleen artean, % 40 oinez joaten dira aisialdi lekuetara, % 22 eskuterrez, % 12 skatez, % 10 autobusez, eta % 10 bizikletaz.
Horrek erakusten digu hurbileko jardunetarako badirela bestelako jokamoldeak. Etxetik hurbil izatea behin eta berriz aipatu dute.

## D) Levier n°1 : La sécurité !




A la question « Tu te déplacerais plus en vélo si… », 33% des réponses font écho à la notion de sécurité. Lorsqu'elle n'est pas formulée comme telle (« si c'était moins dangereux », « s'il y avait moins de voitures », elle évoque la nécessité d'infrastructures cyclables, le nombre trop élevé de voitures, le manque d'attention des automobilistes, le faible nombre de vélos. Elle peut donc être considérée comme le premier frein à l'usage du vélo.

## D) 1. arrazoia: Segurtasuna!

Galdera honi: «Bizikletaz gehiagotan mugituko zinateke baldin eta...», arrapostuen % 33k segurtasuna aipatzen dute. Zuzenean aipatua ez den kasuetan («horren arriskutsu ez balitz», «auto gutxiago balebil»), bizikletentzako azpiegituren beharra aipatzen da, bai eta auto gehiegi ibiltzen dela, auto gidariak ez direla txirrindulariekin ohartzen, bizikleta gutxi ibili ohi dela. Hartara, erran daiteke bizikleta erabiltzeko lehen oztopoa dela segurtasun eza.

# Conclusion

Le vélo est présent dans les familles. Pour autant, il n'est pas considéré comme moyen de déplacements. L'organisation quotidienne des jeunes ne laisse pas de place au vélo pour leurs trajets entre le domicile et l'école.

Ceux-ci sont considérés comme incompatibles avec l'usage du vélo, du fait de leur distance d'abord, de leur dangerosité ensuite.

Pour envisager une utilisation plus régulière, les jeunes posent comme condition la présence d'aménagements cyclables sécurisés.

Le vélo est associé à la promenade, s'il doit être emprunté c'est « pour un tour de vélo près de la maison » parce que faire du vélo est une activité à part entière. Le parcours doit être court, agréable et sécurisé.

# Ondorioa

Bizikleta familietan presente da. Alta ez da mugitzeko baliabide bezala kontsideratua. Gazteen eguneroko antolaketak ez dio tokirik uzten bizikletari beraien etxearen eta eskolaren arteko bidaientzat.

Bidaia horiek bateraezinak dira bizikletaren erabilerarekin, beraien distantziagatik eta beraien arriskuagatik.

Erabilera erregularrago bat ahalbidetzeko, gazteek baldintza gisa bizikletentzako bideak proposatzen dituzte.

Bizikleta, ibilaldiari lotzen zaio, erabili behar bada « etxearen inguruan itzuli bat egiteko » izanen da, bizikleta aktibitate bezala hartua baita. Ibilbidea laburra, atsegina eta segurua izan behar da.

# Annexe 1

## METHODE D'ENQUETE

L'enquête a pu être menée au sein même des collèges Saint Vincent et Irandatz à Hendaye, des collège et lycée Saint Thomas d'Aquin, du collège et lycée Ravel, du collège Sainte-Marie à Saint-Jean-de-Luz, du lycée public maritime à Ciboure.

Le collège Larzabal est un établissement d'enseignement en langue basque. Il en existe seulement 3 sur l'intégralité du territoire du Pays Basque. Il accueille des élèves d'un périmètre géographique étendu dont plus de 90% utilisent les transports scolaires.

**400 questionnaires menés**

10 questions posées au sujet des modes de déplacement pour se rendre à l'école et/ou à des activités de loisirs, et leurs motivations respectives.

2 questions ouvertes permettaient l'expression des attentes et des besoins pour d'éventuels déplacements à vélo.

Si certaines tendances significatives sont identiques d'un établissement à l'autre, quelques distinctions s'opèrent et sont soulignées dans cette synthèse.

# 1.Osagarria

## INKESTAREN METODOA

Galdeketa Hendaiako Saint Vincent eta Irandatz kolegioetan, Donibane Lohizuneko Saint Thomas d'Aquin kolegioan eta lizeoan, Ravel kolegioan eta lizeoan, Sainte-Marie kolegioan eta Ziburuko itsas lizeo publikoan egin ahal ukan dugu.

Larzabal kolegioa euskarazko ikastetxea da. Ipar Euskal Herriko lurralde osoan, halako 3 besterik ez dago. Eremu geografiko zabaleko ikasleak hartzen ditu Larzabal kolegioak eta haietako % 90 baino gehiagok eskola garraioak erabiltzen ditu.

**400 galdetegi**

10 galdera egin zaizkie ikastetxera edota aisialdi jardunetara joateko erabiltzen dituzten lekualdatze moldeen gainean eta hala egitearen arrazoien gainean.

2 galdera irekien bidez azal zitezkeen bizikleta bidez mugitzeko dituzten behar eta gutiziak.

Jokamolde seinalagarri zenbait berdinak dira ikastetxe orotan, baina gertatzen diren aldeak aipatzen dira ere laburpen honetan.

# Annexe 2 - Questionnaire

Age : ………ans Commune et quartier de résidence : ………………………………………………….
Je dispose d'un vélo oui non

Comment viens-tu au collège/lycée :
A pied A vélo En trottinette En skate
En car scolaire Avec le bus de ville En scooter En voiture

Pour quelles raisons utilises-tu ce moyen de déplacement ?
c'est le plus pratique c'est le plus sûr c'est le plus rapide
c'est le plus agréable je n'ai pas vraiment d'autre choix

Si tu viens en vélo, combien de fois par semaine le fais-tu ? …………
Pour quelles raisons l'utilises-tu ?
Proximité depuis mon domicile
Indépendance (je rentre quand je veux)
Commodité

Aimes-tu venir en vélo ? oui non

Utilises-tu le casque, le gilet fluorescent, des lampes pour faciliter ton repérage et mieux te signaler, assurer ta sécurité ?
oui non

Si tu viens en scooter, pourquoi le préfères-tu au vélo ?
plus rapide moins fatigant plus sympa

Si tu ne viens pas à vélo, c'est pour quelles raisons ?
J'habite trop loin
Je n'habite pas trop loin mais le trajet est trop dangereux (il n'y a pas de piste cyclable)
Il y a des côtes, c'est trop fatigant
Il pleut trop souvent je n'ai pas envie de me mouiller
Je n'y ai jamais spécialement pensé parce que j'ai une autre solution
Autres

Quel moyen de locomotion utilises-tu pour te rendre à tes activités de loisirs le soir et/ou le week-end?
A pied En vélo En trottinette En skate
En scooter En bus En voiture

D'une manière générale, si tu devais te déplacer à vélo ce serait quand et où ?
…………………………………………………………………………………………………………
…………………………………………………………………………………………………………

Tu te déplacerais plus à vélo si :
…………………………………………………………………………………………………………
…………………………………………………………………………………………………………
…………………………………………………………………………………………………………
…………………………………………………………………………………………………………

Merci pour avoir répondu à ce questionnaire !

# 2.Osagarria - Galdetegia

Adina: ………urte Bizi zaren herria eta auzoa: ……………………………………………………….
Badut bizikleta bai ez

Nola etortzen zara kolegiora/lizeora:
Oinez Bizikletaz Trotinetaz Gurpil oholez
Eskola autobusez Hiribusez Eskuterrez Autoz

Zergatik erabiltzen duzu ibilmolde hori?
egokiena delako ziurrena delako lasterrena delako
atseginena delako ez dut beste aukerarik

Bizikletaz etortzen bazara, astean zenbatetan etortzen zara bizikletaz? …………
Zergatik erabiltzen duzu bizikleta?
Etxea hurbil dudalako
Independente aritzeko (nahi dudanean etxeratzen naiz)
Erosoa delako

Gustura zatoz bizikletaz? Bai Ez

Erabiltzen dituzu kaskoa, jaka fluoreszentea, argiak, ikusgarri izateko eta seguruago ibiltzeko?
Bai Ez

Eskuterrez bazatoz, zergatik nahaiago duzu hori bizikleta baino?
lasterrago delako gutxiago nekatzen naiz gisakoagoa da

Ez bazara bizikletaz etortzen, zergatik ez zatoz?
Urrunegi bizi naiz
Ez naiz urrunegi bizi, baina ibilbidea arriskutsuegia da (ez da bizikleta biderik)
Maldak daude, nekagarria da
Maizegi dugu euria eta ez dut busti nahi
Ez dut horretaz inoiz pentsatu, beste ibilmoldeak ditudalako
Besterik

Zein garraiobide erabiltzen duzu aisialdi jardunetara joateko arratsetan edota asteburuetan?
Oinez Bizikletaz Trotinetaz Gurpil oholez
Eskuterrez Autobusez Autoz

Oro har, bizikletaz mugitzekotan, noiz eta non eginen zenuke?
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
.......Maizago mugituko zinateke bizikletaz baldin eta:
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………
……………………
Milesker galdetegiari erantzunik!



Communauté D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE
EUSKAL HIRIGUNE Elkargoa

Pôle territorial Sud Pays Basque
Hego Lapurdiko Lurralde eremua

eder bidea

Interreg POCTEFA

UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE